

Gure enpresak kokaleku ugari eskaintzen ditu, eta horrek gure produktua eskuratzea errazten du. Gainera, gure dendak erraz iristeko lekuetan kokatuta daude, eta badezpada, denda inguruetan gure langileak ibiliko dira bezeroak diren horiei laguntzeko. Era berean, produktua zure etxean entregatzeko aukera eskaintzen dizugu, hau da, produktua etxez etxe entregatzeko aukera.



Bezeroak pozik geratzen ez badira, urtebeteko bermea izango dute. Gure bezeroei produktuek urtebete baino lehen funtzionatzen ez balizkiete edo apurtzen badira, produktua konponduko diegu, eta konpontzerik ez badago, beste bat emango diegu.

Dena den, zaila da gure entzungailuak apurtzea, polikarbonatoz eginda baitaude. Polikarbonatoa polimeroa hainbat parteetan ordezkutzen duen materiala da, entzungailuak erresistenteagoak eta iraunkorragoak izateko. Erresistenteak izan arren, bezeroaren erosotasuna ere izango dute. Entzungailuek bost gramo pisatzen dute, eta horrek erosotasun handia ematen dio produktuari.



Gainera, entzungailuak norberak erraztasunez jar ditzake eta ez dira erraz erortzen. Hori dela eta erortzekotan, entzungailuaren sistemak entzumen-gida bat du, erabiltzaileak entzungailua aurkitu dezan erortzen bazaio.

Funtsezko balioabideen artean fisikoa batzuk dauzkagu, ekipamenduetan eta makinerietan, inbentarioan, baliabide naturaletan, instalazioetan, besteak beste. Bestealde, giza baliabide batzuk, hala nola, hauek langileak euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez hitz egitea jakitea.

Amaitzeko, gure enpresak hainbat aurrezki ditu azken urteetako irabaziekin, eta horregatik ez dugu mailegurik edo kanpoko laguntzarik erabili nahi. Horregatik uste dugu aberaste bidezko autofinantzaketa aukararik egokiena dela.